

Urrestarazu familiak saldu egin behar izan zuen Aieteko baserria duela urte batzuk, mantentze gastu handiengatik; orduz geroztik, zutik mantentzearen ala botatzearen inguruko eztabaida kalean izan da.

# Munto, desagertzeko zorian

## Estitxu Zabala

**A**ieteko Munto baserri historikoa botatzeko arriskuan dago. Hala jakinarazi zien udalak auzoko bizilagunei aurreko astean egindako bilera batean. Bileran hartan Ricardo Burutaran eta Axier Jaka Hirigintza eta Partaidetza zinegotziek azaldu zuten, eraikina eraistea beste aukerarik ez dute; «pena da, baina Munto baserria bota beharrean gaude», adierazi zuten zinegotziek. Auzo-

tarren aspaldiko eskaera izan da Munto berreskuratu eta babestea, baina arriskutsua da egun eraikina dagoen egoeran mantentzea. Gaia gertutik jarraitzen dute Aieteko bizilagunek, eta euren irizkiak jaso ditu IRUTXULOKO HITZAK.

Felix Perez Lantxabe Auzo Elkarteak kidea da, eta minduta dago aurreko udal gobernuak eta oraingoak baserriarekin izan duten jarraitzearekin. «Muntoko informazioa jarraitzeaz gain, bertako protagonista izan da Lantxabe elkarteak. Baserriaren babesa gure



Eraikuntza enpresek ez dute ondarearen errespetua bilatzen, negozioa baizik»

FELIX PEREZ  
Lantxabe Auzo Elkarteak kidea

oinarrizko borroketako bat izan da. Urrestarazu familiak Munto saldu behar izan zuenean, gurekin harremanetan jarri zen, gu-

txienez dolarea salbatzeko. Orduan, Eusko Jaurlaritzaren, aldundiaren eta udalaren laguntzarekin, Muntoko dolarea Katxola baserriera eraman genuen 2007an, eta sagardoa egiten dugu urtero», azaldu du harro Perezek. Edonola, Muntoren egoerarekin beti «kezkatuak» egon direla onartu du; «Aieteri ia zera ematen dioten elementu horietako bat da».

Perezek dioenez, urrestarazutarrak bertan bizitzen jarraitu nahi zuten, obrak egin eta barrualdea berrituz. «Udalak, ordea,

behin eta berriz baimen horiek ukatu zizkion. Beraz, baserriaren mantentzeak sekulako gastua zekarrenez, saldu egin behar izan zuten». Perezen hitzetan, ez aurreko udalak eta oraingoak ere ez die sekula Muntoren etorkizunaren berri eman. «Guk sekula ez dugu jakin nork erosi zuen baserria, ez baitugu ez Urrestarazu familiak ez udalak esan. Lehengo astean udalarekin izandako bileran jakin genuen eraikuntza enpresa donostiar baten eskutian dagoela Munto; Munto Berri ur-



Munto baserria, zuhaitzez inguratuta. NAGORE KOOH

Urteetan, bizitokia izateaz gain, beste hainbat funtzio izan ditu Munto baserriak, eta Aieteko bizilagunen bilgune izan da; urteen poderioz, ordea, bere egoerak txarrera egin du, eta azkenaldian harri erorketa bat baino gehiago izan ditu.

## Komentua, ospitalea, sagardotegia...

### E. Zabala

**A**iete pasealekuan, Gurutzeaga elizaren ondoan, Aieteko jauregitik gertu, Munto baserria dago, XVIII. mendeko baserria. Urteetako historia gordetzen du bere paretan artean, eta inguru horretan zeuden 30 bat baserrietatik zutik mantentzen den bakarra da. Etxe handi eta zabala da, antzinakoa, garai batean sendoa izandakoa, baina egun, egoera tamalgarrian eta erortzeko zorian dagoena. Garai batean inguruan zituen baserrien tokian, etxe berriak daude. Aieteko baserri ezaguna da, Urrestarazu familia jaso zuena,

baina makina bat funtzio izan ditu eraikin horrek berak. Komentua izan omen zen; eta geroago, ospitalea; ondoren, sagardotegia; baita sagardotegia eta taberna batera ere. Gainera, ospe handia omen zuen Muntoko sagardoa.

#### Barrualdea erre zuten

Karlistadetan barrualdea erre zuten, hiriko baserri gehienetan moduan, baina zutik iraun zuen. Urteetan joan etorrien ondorioz, ordea, Urrestarazu familiak baserria utzi zuten, eta bertan eurentzako etxebizitzak osatzen saiatu ziren arren, Donostiako Udalak baimena ukatu zion. Hala

ere, mantentze gastuak ordaindu behar zituen familiak. Azkenean, gastu horiei aurre egin ezinik, arkitekto talde bati saltzea erabaki zuten. Jabetza saldu aurretik, ordea, dolarea eta sagardoa ekoizteko erraminta eta pieza etnografiko guztiak Aieteko bizilagunen Lantxabe elkartearekin ematea erabaki zuten. Elkarrekin Katxola baserriera eraman zuten dolarea 2007an, eta hantxe dago, goiko solairuan. Hala, urte batzuen ostean, sagardoa ekoizten hasi ziren Katxolan, Muntoko dolarea zena.

Muntok herri mailako babesa izan du, hau da, paretak babestuetan izan ditu, ondare gisa. Au-

rreko udal gobernuak, ordea, 2011ko martxoan, eraisteko baimena eman zuen. Eta orain, enpresa jabeak baserria bota egin nahi du; eroriko balitz ardura zibila beregain hartu beharko luke elako. Egungo udal gobernuak eraikin historikoaren eraistea ekiditen saiatu dela dio. Horretarako, 2012ko aurrekontuetan eta inbertsio planean aurrekontu-sail bat ezarri zitela diote arduradunek, baina oposizioek taldeekin izandako negoziazioek ez zutela arrakastarik izan. Hala ere, eraistea ekiditeko azken saiakerak egiteko konpromisoa hartu zuten aurreko hilean bizilagunekin izandako bileran. Edonola,

zerbait egin beharra dago, eraikina egun dagoen moduan mantentzea arriskutsua dela argi baitaigo.

2011ko irailean izandako harri erorketaren ondoren, udalak azterketa tekniko bat eskatu zuen eraikinaren egoera zein zen jakiteko, baita ia ere. Aurten, urtarilaren 25ean, beste erorketa bat egon da, eta baserriaren aurreko espaloia itxia dago, hesiekin, oinezkoak bertatik ez igarotzeko.

Baserriaren enpresa jabea da obrak egin behar dituen. Hala ere, eraikina bota ezker, bere tokian baserriaren oroiriaren bat utzeko negoziatuko duela esan du udalak.

banzatu duen enpresa bera, hain zuzen ere. Burutaranek ziurtatu zigun udala eta eraikuntza enpresa horren artean akordio bat da goela. Udalak lurra emango dio etxeak eraikitzeko, eta trukean, enpresa hori Muntoren eraistiaz arduratuko da, eta plaza bat eraiki beharko du».

Perez hitzetan, Muntoren egoera «tamalgarría» da; «la mirari bat da baserria guztiz ez erortzea». Hori kontuan izanda, baserria botatzen badute ere, bere-oroimena bizirik mantentzeko zerbaitegin behar dela uste du Lantxabeak. «Harri orogarri bat jartzeaz gain, arkitekto eta adituen bidez ahalik eta elementu gehien salbatu behar ditu baserria bota behar duen enpresak. Eskailera edo hormaren bat, esaterako, ondoren sortzen duten plazan argi gera dadin Munto bertan egon zela. Hori errespetatuko zutela esan zuten,



**Berritzea eta auzoarentzat uztea ondo legoke, baina udalak ezin du eskua sartu»**

**NAIKE DIEZ**  
Aieteko gaztea

baina zalantzak ditut, botatzea eta dena zementuz betetzea baita ekonomikoena. Eraikuntza enpresak ez dute ondarearen errespetua bilatzen, negozioa baizik. Azken batean, etxebizitza berriz inguratzea nahikoa da baserria suntsitzeko. Aieten 80 edo 90 baserri desagertu dira dagoeneko; kaleen izenetan baino ez dira gertatzen».

Baserriaren balioa zein den argi ikusten dela dio Perezek. «Baserri baliotsua da, askaltzeko tokia du

platanondo bikainekin, behekaldea guztiz atondua upelak zeuden tokian... hori guztia mantendu zitekeen, baina orain beranduegi da». Hurrengo pausoen zain dardel bizi lagunak. «Burutaranek esan zuen agian aldundiak edo Jaurilaritzak baserria ez erortzeko beharrezko milioi bat euro eman gozela. Nik, ordea, ez dut horretan sinesten».

#### Gazteek ere zutik nahi dute

Naik Diez Aieteko gazteak biltzen dituen taldeko kidea da, eta bera ere Muntoren eraistean aurka dago. «Jabetza pribatu izanik berriak dute botatzeko edo ez botatzeko erabakia. Odonek bere azken agintaldian utzitako operari bat izan zen botatzeko eskubide hori, baina auzoak Munto mantentzeko gogo du», dio sendogazteak.

Diezen ustez, «ikur sinbolikoa» da auzotarrantzat; «aitearren-

tzat topaleku bat zen». Euren helburua betetzeko lanean ari direla esan du. «Ondaregintza taldekoak leku historikoak mantentzeko lanean ari dira, momentuz, nahiko isilean, eta Aieteko gazteak laguntzen gabiltza ahal dugun guztian».

Baserria botatzea pena litzatekeela dio. «Berritzea eta auzoarentzat uztea ondo legoke, baina udalak ezin du eskua sartu. Bota bitartean pixka bat borrokan jarraituko dugu, agian elkarteren batek diru laguntzaren bat emanda jabeek iritzia alda dezakete... zaila dago».

Baserriaren tokian jarri deza ketenarekin ere ez dago ados. «Berez plaza bat egiteko asmoa dute, eta nire ustez, Aieten plazak soberan ditugu, eta hobe litzateke beste erabilpen bat ematea», adierazi du Diezek.

o ezabala@hitza.info



#### TALERRAK - IKASTAROK

##### Xake ikastarok

Oinarritza: Asteartero 18:30-19:30  
Erdi-egia: Asteartero 19:30-21:00  
Aurreratua: Astelehenero 18:30-21:00  
Dinamizatzaile eta antolatzaileak:  
Julia Gallego Eraso

##### Diba feminista ezezagunak

Otsailaren 14, 18:00-20:00  
(Jumabosten behin, 10 saio)  
Formatzaila: Itxar Ziga  
Antolatzailea: Emakumeen Etxea Elkartea

##### Género lidereza Formazioa

Asteartero 18:00-20:30  
Dinamizatzailea: Beatriz Zalakin  
Antolatzailea: Garapen

##### Batukada

Astelehenero 18:30-20:30  
Dinamizatzailea: Arantza Vicedo  
Antolatzailea: Emakumeen Etxea Elkartea

##### Antzerki Tallerra

Ostiraleko 17:00-19:00  
Dinamizatzailea: Lourdes Tejera  
Antolatzailea: Emakumeen Etxea Elkartea

##### Feminismoa ez feminizantzat

Ostiraleko 11, 18:00-20:00  
(Jumabosten behin, 10 saio)  
Formatzaila: Maria Castejón  
Antolatzailea: Emakumeen Etxea Elkartea

##### Edonolizkoak: laguntza taldea

18 astelehenero, 15:00-17:00  
Antolatzailea: Euzkoalduko Emakumeen Lega

##### "Mugitu feminismoan" tallerra

18 eta 25 astelehenero, 18:00-21:00  
Dinamizatzailea: Ana Revuelta  
Antolatzailea: Emakumeen Etxea Elkartea

##### PROIEKTUAK

##### Emakume etorkinen

kulturalizatasun gunea  
Asteartero, 16:00-18:00  
Dinamizatzailea: Garapen  
Antolatzailea:  
Berdintasun Bulegoa eta Garaipen

##### Emakumeak indarkeriarik

gabeko bizitzaren alde  
Ostegunero, 16:30-18:30  
Dinamizatzaile eta antolatzaileak: Garaipen

##### DENDA GRATIX

Etorri eta eraman ezazu nahi duzunak  
Baldintza bakarra: erabili ezazu!  
Gauzak ekartzeko asteazkenetan 14:00-21:00  
Antolatzailea: Emakumeen Etxea Elkartea

##### EKINTZAK

##### Mintegia: Emakume Palestinar

Errefuxiatua

(UNRW)

12 asteartea, 19:30-21:00

Dinamizatzailea: Pizandreak

Antolatzailea: Pizandreak

##### Knits

15 ostirala, 17:00-19:00

Antolatzailea: Euskadi Knits

Jardunaldiak: Ekofeminismoa

18tik 22ra 17:00-20:30

Dinamizatzailea: Mundubat

Antolatzailea: Mundu Bat

eta Donostiako Udala

\*Aurri Izen-ematea

##### Zine-Forum Feminista

27 asteazkena 19:00-21:00

Antolatzailea eta Dinamizatzailea:

Emakumeen Etxea

Elkartea

##### ERAKUSKETA

Emarok

Ostiraleko 16ra arte

Antolatzailea: Berdintasun Sails

##### \* Haurtzaindegi zerbitzua eskainiko

zale ekintzetan parte hartzen duten

personen haurrei.

Zerbitzu honetarako, ekintzaren

data baino 3 egun lehenago abisua

eman beharko da, telefonoz.

Okendo, 9



Baserriaren eskailerrak. NAGORE KOCH



Eraikineren atea ikusita daude. NAGORE KOCH

Ricardo Burutaran • Hirigintza zinegotzia

## «Guretzako albiste txarra da»

### E. Zabala

Ricardo Burutaran hirigintza zinegotziaren hitzetan, udal gobernuak azken saiakera egiten ari da Eusko Jaurilaritzarekin eta Gipuzkoako Foru Aldundiarekin, Munto zutik mantentzeko.

#### Udal gobernuan sartu zinetenean zein zen Muntoren egoera?

Sartu bezain laster ikusi genuen aurreko gobernuak Munto botatzeko lizentzia emana zuela, eta indarrean jarraitzen du. Beraz, jabeek edozein momentutan botatzeko aukera dute.

#### Zeregin duzue orain arte?

Jabeekin hitz egin genuen, eta eskatu genien, baimena izan arren, momentuz ez botatzeko. Azaldu

genien gure nahia eraikina mantentzea zela, eta alde horretatik bi kontu abiatu genituen. Batetik, udal teknikariek baserriaren egoera baloratu ostean, aurrekontuen zirriborroan milioi bat euro gorde genituen Munto kanpotik konpontzeko. Gai nontzeko alderdiekin hitz egin genuen, baina sekulako egurra eman ziguten, bereziki, Alderdi Popularrak eta Alderdi Sozialistak. Beraz, ezin izan genituen aurrekontuak aurrera atera eta atzeratu egin ziren. Bestetik, Eusko Jaurilaritzarekin eta Gipuzkoako Foru Aldundiarekin harremanetan jarri ginen, aurrekontu hori euren gain har zezaketen galdetzeko. Aste honetan, berriro harreman horiekin gabilta,

Erakundeetako bat laguntzeko prest badago, jabeekin hitz egingo genuke guztia bideratzeko. Jabeek eraikina bota nahi dutela esan digute behin baino gehiagotan, izan ere, zerbaite gertatuko balitz, ardura eurena izango litzateke. Erakunderen batek beharrezko diruak jartzea posible ikusten duzu?

Nik nahiko zaila ikusten dut. Gordina da hala esatea, baina horrela esan genien bizilagunei. Azken saiakera da, eta inork asmoa badu horren alde egiteko, gu prest gaude.

#### Bizilagunek beranduegi dela diote...

Bai, beraiek bereziki haserre daude bere garaian babestua egon den eraikin bat zahartzen utzi delako. Arrazoi osoa dute. Ardura-

gabekeria egon da, prozesu hori ekiditeko aukera egon baitzen. Guretzako albiste txarra da, baina egia da orain arte jabeek eraikina mantendu dutela, botatzeko aukera zuten arren. Behin baino gehiagotan harriak erori dira, eguraldiak ere ez du laguntzen, eta kanpotik zutik dagoen arren, barrutik oso gaizki dago.

#### Eta jabeek azkenean botatzen badute, zer geratuko da baserriaren tokian?

Gune publiko bat izango da, ez dira etxebizitza pribatuak izango. Bizilagunek eskatu ziguten, zortiarrez botatzen badute, plaka bat uzteaz gain, beste orogarriren bat uzteko. Badaezpada hori ere aitzertzeko eskatu diet teknikariei. Guztia bota beharrean, zutik mantentzea nahi duguna salbatuko genuke. Ez dakigu asfaltozko gune bat edo lorategi bat izango den. Edonola, Munto zutik mantentzeko azken saiakera egiten ari gara.